

Biktimak gatazka ebazteko bidean



M A H A I - I N G U R U A

- Emilio Lopez Adan ■ Jonan Fernandez
- Julen Arzuaga ■ Txema Urkijo

I R I T Z I A K

- Jesús Biurrun
- Fabián Laespada

Biktimekiko empatia eza gatazkaren sintoma larria

■ Mikel Asurmendi

Mahai-inguruko argazkiak: Dani Blanco

Biktimen gaia hizpide hartutakoan, biktimak “euskal gatazkan” idatzi beharra antzeman genuen berehala. Zaila baita izan, biktimez aritzea euskal gatazkaz inplizituki hitz egin gabe. Solaskideek jarrera desberdinak eskaini dizkigute biktimen auziaz, guk, alta, jarrera osagarriak ikusi ditugu. Bide luzea egiteko dago gatazkaren ebazpena nahiz jendearen errekontziliazioa lortzeko, gatazka bizirik dago-eta. Alabaina, biktimen auzia tratatzen hasi izanak gizartea botereen aurretik dagoela erakusten du. Solasaldia ETAk su-etenaren amaiera ezagutarazi aitzin egina dago.

Biktimak (euskal gatazkan) gaia hartu dugu hizpide. Biktimaren izaera definitzea proposatzen dizuegu hasteko. Nor da biktima gatazka batean?

EMILIO LOPEZ ADAN. Hasteko, funtsezko eta egokiena biktima gatazka bortitzeko biktima dela adieraztea da, biktimak adiera gehiago har dezake-eta. Gatazka irtenbide negoziatu batera bideratzen ari da, itxuraz behintzat. Negoziaziora bideratzen ari den gatazka bada, gako negoziatzen ari direnek topagune bat aurkitzea da. Horiek horrela, garrantzitsuena ez da –alde bateko nahiz besteko– biktimak mahai gainean jartzea, gatazka bortitza gerrako legeen esparruan kokatzea baizik.

Gerraren legeak gerraren errealitatea humanizatzeko eta ebazpen bat bilatzeko sortu dira. Gatazka armatuan bi biktima mota daude, borrokatzen dutenen arteko biktimak, eta oldartze ez-normalean eragindako biktimak. Hauen artean, batetik, biktima zibilak daude, eta bestetik, legez kanpoko tratuak jaso dituzten borrokalaria. Biktima borrokalariek eskuarki errekonozimendua dute, gerrako legeen ara-

berakoak. Gainera, burkideek hainbat ohore ematen diete, eta batzuetan etsaiek ere errekonozituak izaten dira. Konparazio: Polizia Nazionaleko buruak *Argalaren* hilkutxa Arrigorriagan agurtu zuenean edo Guardia Zibilak Txomin Iturberen hilotza Bartzelonan jasotzean. Aitzitik, ez da horrela izaten biktima zibilekin edo legez kanpoko ekintza paraestatalekin eragindakoekin. Biktima horiek –alde batekoek nahiz bestekoek –bi aldeen ezagutzaren konpromisoa behar dute. Prozedura bat bilatu behar da, ez guztiz berdina bi aldeentzako, baina bai antzekoa. Horrek bi aldeen arteko topagunea ekar lezake, horrek, alta, bi aldeen negoziatzeko bokazioa eskatzen du, gerrako legeen aurka egin dutena onartzea.

TXEMA URKIJO. Nire ikuspuntutik “bortitza” hitza nahasgarria da. Hitzak hainbat kontzeptzio biltzen ditu, desberdinak eta kontrajarriak. Kasuistika asko dago eta horiek gatazka bortitzen teoria finkatzea galarazten dute. Emiliok gerrarena aipatu du, ziur aski egoera hori historikoki gaudituta dago, XX. mendearen lehen erdialdekoa delako. Lege horiek obsoletuak geratu dira gerraren nahiz gatazka borti-



Ezker-eskuin: Jonan Fernandez, Julen Arzuaga, Txema Urkijo eta Emilio Lopez Adan.

tzen kasuetan. Kasu horietan estatuek egiten zuten gerraren ekimen solemnea zegoen: gerra deklarazioa. Borrokalariak eta biktimak bereizten ziren. Hori adiera bat da eta berberak gatazka bortitz bateko biktinez hitz egitea galarazten digu. Planteamendua kontzeptu bortitzari atxikitzea ekibokoa iruditzen zait, baita esparru teorikoan aritzeko ere.

JONAN FERNANDEZ. Ez da erraza gatazkaz hitz egitea, oraindik ere gatazka bizirik denean. Nik suntsizaile kontzeptua erabiliko nuke, bortitzaren aldean. Eta ez da erraza biktimak nor diren zehaztea ere. Biktimak noiztik hasi behar diren izendatzen zehazteko arazoak daude, kausak eta egitateak ez daude kasu guztietan beti frogatuta. Istripuen ondoriozko biktimak daude, esaterako. Biktimen unibertsoa zedarritzea ez da samurra, baina berau egitea funtsezkoa da biktimentzako eta errekontziliazio pro-

zesua lortzeko. Biktima generikoen definizioa egingo dut: biktimak muturreko sufrimendu esperientzia pertsonala –edota familiarra– bizi duten pertsonak dira, eta sufrimendua eragin duen kausak ez du axolarik. Gatazka suntsizailearen ondorioz gizaeskubideen urratua jasan duena biktima da. Definizioa oso zabala da, eta errekontziliazioa lortzeko funtsezko perspektiba eman behar digu. Solasaldia bideratzeko beharrezko puntua iruditzen zait.

JULEN ARZUAGA. Nik, solasa zentratzeko, gatazka izaera politikoa duela adierazi nahi dut. Bere kausak ere azaltzea beharrezkoa ikusten dut, berau konponduko bada. Gatazka konpontzeko premia larria dago. Gatazka politikoa honek izaera bortitza agerikoa du, gainera, biktima hitza, hainbat diskurtso politikorekin batera erabili ohi da, hartaz, biktimaren izaera diskurtsoaren jatorriaren arabera definitzen da, batzuetan

hitza bera desitxuratuz. Estatuak nazioarteko komunitateak herritarren gizaeskubideak babesteko ardura hartu dute, baina betebeharrak horretan huts egiten dute. Gizaeskubideen galera nozitu duten biktimak daude, Estatuak berak eraginak. Izan ere, hemen biktima hitza eragile batzuek eragiten duten biktimari lotu zaio soilik, gurean ETAren biktima da. ETAren biktimaz hitz egiten da baina Estatuaren bortizkeriaren ondoriozko biktimak, gatazkaren biktimak direla ere ahaztuak dira, Estatuaren ardura ez da inon agertzen.

E. LOPEZ ADAN. Jonanen kontraesan bat aipatu nahi dut. Biktima esperientzia pertsonala duen pertsona bezala definitu du berak, bere esperientzia pertsonala egoera suntsitzailerik baten ondorioa dela. Ados. Baina horrek ez du galarazi behar, izaera politikoa duen gatazka honen konponbidea bilatzea. Definizio horrek ondorio okerrera eraman gaitzake. Adibidez, gatazkaren ondorioa biktimak dira eta euren egoera konpontzea beharrezkoa da. Estatuaren indar armatuaren sufrimendua axola zait, baina niretzat ez dira arazoaren eta eztabaida honen ardatz.

J. FERNANDEZ. Baina galdera da nola definitzen dugun biktima, ezta?

E. LOPEZ ADAN. Nik esana dut: gatazka armatu bateko biktimak definitzerakoan garrantzizkoagoa iruditzen zait gatazkaren izaerarekin –gerraren legeekin– zerikusia duena, sufrimendu pertsonalarekin lotura duena baino.

J. FERNANDEZ. Hori ikuspegi bat da, eta beste bat biktimen tratamendurekin zerikusia duena. Honek bi norabidetan lan egitea eskatzen digu: batetik, biktimak laguntzera, berebiziko lehentasuna duena, eta bestetik, elkarbizitza eta errekontziliazioa lortzera. Horrek ez du gatazkaren konpontzea baztertzen. Biktimen sufrimendu guztiak biltzen dituen esparrua definitu eta landu behar da, hau egin ezean baztertuen esparrua zabalduko da eta nahigabeko ondorioak ekarriko ditu.

E. LOPEZ ADAN. Orduan alderantzizko lehentasunak ditugu, edo desberdinak.

M a h a i k i d e a k

■ JULEN ARZUAGA



Giza Eskubideen Euskal Herriko Behatokiko koordinatzailea.

Julen Arzuaga Gumuzio 1972an Deustun jaio zen, kasualitatez. Audioko Areta auzoan (Araba) hazia da eta Aiala eskualdekoa sentitzen da, arabarra alegia. Abokatu da lanbidez eta Giza Eskubideen Euskal Herriko Behatokiko koordinatzailea. 1997an, Belfasteko Queen's University-n ingeleseko ikasketak egin zituen eta bertako egoera politikoa ezagutu zuen. AEKn euskaldundua. Eguzki ekologista taldeko eta Ikasle Abertzaleak erakundeko partaidea izana.

■ JONAN FERNANDEZ



Baketik zentroaren zuzendaria

Jonan Fernandez Erdozia Tolosan jaio zen 1962an. Hainbat erakunde zibiletako sortzailea eta kidea izana. HBko zinegotzia izan zen Tolosan. Leitzaran autobidearen eraikuntzaren auzia medio, Lurraldeko koordinadoraren sortzaileetako bat izan zen, instituzioen eta herri ekimenaren arteko hitzarmena lortze aldera. Ondoren Elkarki mugimendu bakezalearen sortzailea eta koordinatzailea izan zen. Gaur egun, bakearen aldeko Baketik zentroaren (Arantzazun; Oñati) zuzendaria da. *Ser humano en los conflictos* liburuaren egilea da.

J. FERNANDEZ. Gatazkaren konponbidez ariko bagina, beharbada, bat egingo genuke zurekin, baina biktimen gaiaz ari gara.

T. URKIJO. Nik eztabaidaren hasiera honetan zailtasunak antzeman ditut, solasaldia gure errealitatetik at dago erabat. Nik modu orokorrez ihardetsi diot Emiliari. Gatazka bortitzaz hitz egiteko zailtasuna dugu, kontzeptua baketsua balitz bezala ari garelako. Horra paradoxa. Gatazka hitzak adiera anitzak ditu eta horrek galarazten du biktimen beharrez hitz egitea, eta ez du balio kontzeptua unibokoa izango balitz bezala aritzeak. Agian komeni da teoriatik harago joan eta gurera etorri, praktikara.

Gatozen errealitatera bada. Errekono- zitu al dira euskal gatazkako biktima guztiak?

T. URKIJO. Zehaztu aldera: nik izaera politikoa duen hainbat gatazka onartzen dut. Euskal gatazka euskal gizartearen nortasunarekin lotuta dago, eta konponke-

tak Euskal Herriaren eta inguruko herrien arteko uztartzea eskatzen du. Bestalde, egoera bortitza dago. Honetan desadostasunak izan ditzakegu izaera politikoaren eta eman daitezkeen gatazkaren espresioen artean. Zuek –Emilio eta Julen– bi egoerak kausa eta efektu/ondorio bezala erlazionatu dituzue. Jarrera hori ordea, gizartearen sektore gutxiagotu baten jarrerari lotua da. Niretzat bi egoerak bereiz landu behar dira, gatazka bortitzak ez du deus ikustekorik arazo politikoaren konponketarekin, euskal arazoak konponketarako bide propioak ditu eta gatazka bortitzak berea.

Alde hori argitu dugu behinik behin.

T. URKIJO. Bai. Bi egoerak, ikuspegi demokratiko batetik, deslotu behar dira. Gatazka politikoaren eta gatazka bortitzaren arteko lotura batzuek baino ez dute egiten, batzuk kausa eta ondorioaren loturari eusten saiatzen dira, baina gizartearen gainerakoa- rentzat ez da lotura existitzen. Areago, gatazkaren kudeaketa egoera bortitza ez den beste bide batetik landu behar da. Bi arazoei modu desberdinez ekin

■ EMILIO LOPEZ ADAN



Medikua eta analista politikoa

Emilio Lopez Adan 1946an jaio zen Gasteizen. Valladoliden hasi zituen Medikuntza ikasketak eta Belgikan espezializatu zen. ETA sortu berrian sartu zen, eta erakundeke buruetako bat izan zen 60ko hamarkadan. 1973an LAIaren sorrerako biltzarrean izan zen, baina ez zen alderdi berrira pasa. Historiagile, idazle eta analista politikoa da, liburu bat baino gehiago idatziak ditu, eta egun, hainbat euskal komunikabidetan egiten ditu analisi politikoak. Ginekologo lanean ari da Baionan.

■ TXEMA URKIJO



Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendariaren albokoa

Txema Urkijo Azkarate Laudion jaio zen 1961ean. Zuzenbidean lizentziatua Deustuko Unibertsitatean. 17 urtez abokatu lanetan aritutakoa. Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundearen (Gesto por la Paz/BAK) kidea izana aldi ezberdinetan: 1990 eta 1999an. Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen saileko zuzendaria 2002tik 2006ra bitartean. Egun, Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendariaren albokoa da.

behar zaie, eta puntu hau argi geratzea nahi nuke, gure arteko desadostasunak begi-bistakoak baitira.

J. ARZUAGA. Nik berriz, kontrako ikuspuntua daukat, eta gainera, pentsatzen dut, gizartearen gehiengoak batek ikuspuntu honekin egiten duela. Euskal Herriko gatazkaren sustriak ez dira ezerezetik sortu, kausak dituzte: kausak –zuk esan duzu Txema– Euskal Herriaren eta inguruko herrien arteko uztartze edo moldatze falta direla eta sortu dira. Alabaina, uztartze hori egin ahal izateko, herri proiektu denek ez dute garatzeko aukera bera izan. Ondorioz, pertsona batzuek egoera honi modu konkretu batez oldartzea erabaki dute. Beraz, nik efektu/ondorioen balorazio hau egiten dut: kausak egon badaude, eta efektuetan sartzeak biktimen auziari ekitera eramango gaitu. Estatuak sustri politikoak dituen arazoari jokamolde horretatik egin dio aurre: Estatuak ez ditu jendearen eskubideak modu doako batez urratu, erantzunezko jarrera neutralizatzeko bortizkeria erabili du eta honek biktimak eragin ditu, gizaeskubideen urratu larriak eraginez.

E. LOPEZ ADAN. Txema, zuk esan duzu “jende batek, armen bidea hartzea erabaki duela beharrik gabe, populazioaren gehiengoarengandik alden-dua”. Noizkoa da erabaki hori?

T. URKIJO. Esan dut erabaki duela gatazkari modu zehatz batez ekitea eta hori borondatezkoa dela.

E. LOPEZ ADAN. Ados. Noiz –edo zein garaian– koka dezakegu biolentzia egoera erabaki pertsonala dela eta ez gehiengoarena?

T. URKIJO. 1977ko amnistiaren unean, adibidez. Ezarri zen sistema demokratikoaren hasieran, nahi duzun inperfekzio guztiekin, baina demokratikoa. Euskal gizarteak, baita espainiar gizarteak ere onartua, nahi duzun adina inperfektua, berriz diot, baina nazioarteko demokraziaren arau estandarrik dituen. Harrezkero ez da justifikaziorik izan gatazka politikoari biolentziaren jardueraren bitartez ekiteko. Zuek gatazka politikoaren biktimei buruz hitz egingo duzue, eta nik terrorismoaren biktimei edo bortxaketa larria jasan dutenei buruz –Julenekin

“**G**atazka armatu bateko biktimak definitzerakoan garrantzizkoagoa iruditzen zait gatazkaren izaerarekin –gerraren legeekin– zerikusia duena, sufrimendu pertsonalarekin lotura duena baino”.

EMILIO LOPEZ ADAN

konpartitzen dut pertzepzio hau–, baina nik ez dut gatazka politikoaren biktimei buruz hitz egingo.

E. LOPEZ ADAN. Nik ez dut terrorismoaren biktimei buruz hitz egiteko inolako arazorik, hots, ETak terrorismoa egin duela esateko. Niretzat arazoa da, bi egoerak edo garaiak zamalkatzen direla denboran: Ekin-en eta ETaren sorreratik –1953tik 1977ra– doan garaia. Garai hori bizi zuen jendeak biolentzia legezko bat praktikatu zuen. Faxismoaren garaia zen. Garai horrek arrasto eta memoria historiko oso garrantzitsuak utzi ditu, arrasto horren parte handia gaur arte iritsi da, eta hori ezin da apurtu edo zedarritu nolanahi, ezta 1977an ere. Bereizketa hori egitea memoriari muzin egitea litzateke, ETaren alde egon zen jendea ignoratzea erabat. Besterik da, ETak terrorismoa egiten duen unetik, zibilen eta kargu politiko hautatuen aurkako ekintzak egiten hasi zenetik gaur egunera datorren garaia. Hau da, ETAK borrokalaria ez direnen aurka joz biktima zibilak sorrarazi dituen garaia. Horrek apurketa historikoa ekarri zuen ETAn. Apurketa hau 80ko hamarkadan hasi zen eta horrek ETaren aurreko belaunaldien egoera zailtzen du. Ez ditugu data berberak eman, baina hasi gara garaiak zedarritzen.

J. FERNANDEZ. Ni isil samar egon naiz, propio. Izan ere, gatazka politikoaren izaeraz eztabaidatzeko foro asko dago, eta errespetatzen ditut, baina ez naiz sartuko gaian, nire jarrera ezaguna da. Beraz, gaiari buruzko aurretikoak ezarri ostean bi galdera funtsezko planteatuko nituzke. Bat: zer da inportantea biktimentzat? Eta bi: zer da funtsezkoena biktimaren ingurukoentzat eta gizartearentzat orobat?



EUSKADI ETA ASKATASUNA TXALAPARTA

Espainiako polizia nazionalek diosal eginez hartu zuten ETako Jose Miguel Beñaran Ordeñana Argala buruzagiaren hilkutxa. (Arrigorriaga; 1978. Bizkaia). Argala Lapurdiko Angelun hil zuen BVEk.

Erantzun zuk zeuk...

J. ARZUAGA. Orduan nik beste zerbaite gehitu nahi dut.

J. FERNANDEZ. Bada, gero segituko dut.

J. ARZUAGA. Nik kausa-efektuen puntuan sakondu nahi dut, gatazkan dauden erantzukizunak garbi uztea nahi nuke. Nik pertsona batek ekintza bortitz bat burutzen duenean hartzen duen erantzukizuna desberdintzen dut, hau da, legalitateari aurre egiteko erabaki bat hartu duenak, legalitate penala urratzeko ardura du. Bestetik, Estatuaren jarrera bortitzaren ondoriozko erantzukizuna dago. Estatuak biolentziaren monopolioa duen arren, Estatuaren biolentziak mugak dituela uste dut, biolentzia hori legez kanpo bihurtzen denean, ez-legitimoa, arazoaren larritasuna are handiagoa da, Estatuak hiritarren eta nazioarteko komunitatearen aurrean gizaeskubideen arau estandarrek betetzeko ardura baitu. Nik ordezkatzeko dudak taldea kategoriatan horretan mugitzen da. Hau da, epaiak kanpoko exekuzioak edo torturak burutu badira, Estatuaren babesaz, Estatuaren erantzukizuna handiagoa da, armak eta gaitasuna alde baititu eta bere agenteei inpunitea bermatzen dielako.

E. LOPEZ ADAN. ...eta ni ez nago ados zurekin Julen. Izan ere, ETaren gatazka etika iraultzailearen

ikuspuntutik ulertzen badugu –eta borroka arma-tuaren praktika hasi zenean horrelakoa zela uste dut–, ekintzaileak erantzukizun iraultzaile oso zorrotz batetik ekin behar dio borrokari, Estatuaren baina are zorrotzagoa izan behar du, ardurak simetrikoa izan behar du gutxienez.

Garbi dago, bakoitzak gatazka bere modura ikusten duela eta horrek eragin du biktimen auziaz solasean eta eztabaidan.

J. FERNANDEZ. Bakoitzak gatazkaz egin dezakeen diagnosiaren aurretik, badaude giza inperatibo bi, nire ustez. Biktimentzako zer da garrantzitsua? Lehenik: Biktimizazioa gainditzea ikuspuntu pertsonaletik eta familiarretik. Biktimizazioa gure bizitzan gertakari batek utzi duen karga suntsitzailea da, berau gainditzea berarengandik askatzea da, gure bizitzaren jabe izatea. Alegia, gure bizitza hondoratu duen zauria gainditzea. Bigarrenik: gure inguruari dagokio, gizarteari. Denok dugu desafio garrantziko bat biktimen sufrikarioarekin: humanizazio –edo deshuminizazio– dinamika batek nora eramaten gaitzakeen zehaztu behar dugu. Arazo politikoaz ari garenean, kausa-efektu diagnosisz ari gaitzake, baina sufrimenduarekiko enpatian ez da hau kabitzen. Sufrimendu injustu batek berezko balorazioa eskatzen du, elkar mespretxatu gabe, biktimen fenomenoaren aurrean



JOSEBA OLALDE

2000an, PSEko Fernando Buesa kidea eta lehendakariorde izana hil zuen ETAK Gasteizen. Atentatu berean Jorge Díez ertzaina ere hil zuen.

pertsonen eta gizarteak dugun berebiziko erronka dena. Deshumanizazioaren dinamikak sufrimendua gehitzen du eta pertsonen enpatia gaitasuna gutxitu. Sufrimenduaren aurrean ez badugu enpatia azaltzen, ez dago irtenbiderik, gatazka ez da bideratuko enpatiarik gabe. Alabaina, zehaztapen bat egin nahi dut: nire ikusmoldetik, gizarte orok betebeharrak morala dauka, baina euskal gizarteak –beste gizarteetan aldean– ez du berezko betebeharrak moralik.

Segi dezagun biktimen auziarekin: errekonozitu al dira biktima guztiak?

J. FERNANDEZ. Ez dira biktima guztiak errekonozitu. Eta ez da harriztekoa, errekonozimenduak –beste esperientziak ikusita– denbora behar du, lasaitasuna, eta guk ez dugu behar den sosegua lortu oraindik. Helburua biktima guztiak onartzea da, baina horrek denbora eskatzen duela kontziente izan behar dugu. Egin dena ez da aski eta beran-

du iritsi da. Esperientziak erakutsi digunez, egun ez dago errekonozimenduzko ekitaldi bateratuak egiterik, urratsez urrats joan behar dugu.

T. URKIJO. Jonanek denbora aipatu du eta denbora elementu gako da. Baliteke –biktimek euskal auzian hartu dituzten lekuaz eta protagonismoaz ari naiz–, nazioartean gurea bezalako esperientziarik ez egotea, gatazka oraindik konpondu gabe baitago, bizi-bizirik. Alegia, eskuarki, biktimak gatazkaren konponbidearen une aurreratuetan agertu izan dira, Euskadin bideratu den gatazken ebazpen prozesuan biktimen plazaratze hau fenomeno berria da. Biktimak ikusezina izan dira orain arte, ETAK kargu politiko, epaile eta kazetarien aurka jo zuenean agertzen hasi ziren biktimak, pertsona ezagunen aurka atentatu zuenean. Jendea ezaguna izateak biktimen tratamendu desberdina ekarri du. Orduan, bloke batek ETArekin biktimen patrimonializatzea nahi –izan– du eta beste blokeak biktimen etsaia bailitzan agertu. Horrek biktimen tra-

“**E**statuak ez ditu jendearen eskubideak modu doako batez urratu, erantzunezko jarrera neutralizatzeko bortizkeria erabili du eta honek biktimak eragin ditu, giza-eskubideen urratze larriak eraginez”

JULEN ARZUAGA

tamendua lantzea zaildu du. Zehazpen bat: Jonanek sufrimenduarekiko enpatia oinarritzkoena dela dio, baina enpatiak tratamendu berezia behar du, denbora hartu behar du. Jonanen planteamenduaren helburuetan bat nator, baina eman beharreko urratsak denboran zehaztu behar dira.

J. ARZUAGA. Jonanek eta Txemak esandakoez bi hitz: biktimen gaiari aurre egin behar zaie, lehen mailako eta bigarren mailako biktimak ezarri gabe. Eta gaur egun tratamenduen artean alde izugarria dago. Nik lan egiten dudan Estatuaren bortizkeriaren biktimek arazo gaindiezina dute –nazioartean lau Eak bezala ezagutuak–: Errekonozimenduaren, Errehabilitazioaren, Erreparazioaren eta ez Errepikatzearen bermea. Eta honetan eman diren urratsak milimetrikoak dira, biktima hauek pertzeptzio hori dute. Badago begi-bistako agrabio bat biktima hauekiko, biktimen alde honek errekonozimendua oso gutxi aurreratu dela hautematen du, erreparazioan batera ez. Baldin eta gatazkaren konponketara iritsi nahi badugu berme gehiago eskatzen dute biktima hauek. Gainera, bestaldeko biktimen protagonismoa handituz doala ikusi dute.

J. FERNANDEZ. Julen, ados nago erabat esan duzunarekin, eta biktimek berauek esatea hori logikoa eta ulergarria da, eta nire sostengua daukate. Ni berriz hurkoen lanaz eta rolaz ari nintzen, ez biktimenaz. Gure erroka da biktimak ez konparatzea, ez parekatzea, ez egin kausa-efekturik. Sufrimenduak balorazio bat egitea eskatzen digu: pertsona honek tortura jasan du, pertsona hori hila izan da, zein da nire balorazioa?

J. ARZUAGA. Baliteke, zu Jonan, esparru etikomoralean kokatuagoa izatea, eta neronek gizaeskubideak bermatzeko diren instituzioen lanean gehiago erreparatzea. Irlanda bisitatu dugu berriki, eta bertako errealitatea ezagutu: ekintza polizialen eta paramilitarren erasoen ardurak zehazteko egundoko lana egiten ari da. Estatuaren bortizkeria jasan duten pertsonak aipatutako lau Eak jaso ditzaten ari gara, oraindik ere jaso gabe baitira gurean. Gainera, konponbidean ematen ari diren urratsen aurrean, ETaren biktimen jarrera eta Estatuaren biktimen jarrera berezita daude. Lehenak mendeku jarretara hurbiltzen ari diren bitartean, besteek –alde bateko nahiz besteko– biktima gehiago ez dadila izan eskatzen dute.

E. LOPEZ ADAN. Badago argitu beharreko puntu bat, eta da: nori dagokio biktimen erreparazioa? Jendarteari edo botere publikoei? Nahasketa handia dago, uneon biktimen arazoa alor politikora desbideratzen ari da, noraez juridiko handia dago arlo zibilaren eta arlo penalaren artean, akusatzaileen eta biktimen rolen artean. Badirudi biktimak epaile direla. Jakina, jendarteak badu betebeharrak bat biktimekiko: beren bizitza erraztea. Ikuspuntu honetatik joera erlijiosoa izan da, jendeak bazekien dolua eta lutua eramaten, baina ohitura galduz joan da eta botere publikoek rol hori hartu dutela dirudi. Hartara, Estatuak eskubide penalaren ardura hartu duenean, biolentziaren arduradunak zigortzen ditue-nean, Estatuak epai publikoa burutzen du biktimen desioak asetzeko. Hori zibilizazio marka izugarria da, biktimek mendekurako joera handiagoa baitute ongizate publikorako baino. Botere publikoek arzoari aurre egin behar badiote ongizatearen eta ordenuaren ikuspuntutik, funtsezkoa da egitatei buruzko ikerketa bat egitea, batzuek nahiz besteek zer gertatu den ondo jakin dezaten: arduradunen kondena aurreikusitako, baita erreparazioak aurreikusi ere biktimenaz. Ikerketa, zigorra eta erreparazioa eskaini behar dizkie jendartearen testuinguruan sar daitezen, eta testuinguruan negoziazio politikoa sartzen bada, horrek –eskubide penalaren partea denez– kondenatuaren erreinsertzio eta erreintegrazio soziala ekarri behar du. Gatazkaren konponbidean funtsezkoa da ikuspuntu hauek aintzat hartzea, biktimek ebazpenaren parte izan nahi badute testuinguru hori onartu behar dute.

“**E**Taren biktimek azken hamarkadan ezagutza soziala, politikoa eta instituzionala izan dituzte, baina aurreko hamarkadan aldiz ez zuten batere errekonozimendurik, hutsaren hurrengoa baizik. Gizartearen erantzuna hutsa izan zen, instituzioen tratamendua ere hutsa”

TXEMA URKIJO

T. URKIJO. Esan duzuna bete-betean sartzen da nazioarteko gizaeskubideen doktrinan. Hau da, ekimena ez da bakarrik lau Eak delakoa betetzera mugatzen, egia, justizia eta erreparazioa ere hartu behar dira kontuan. Hemengo biktimei doakion zehazpen bat: funtsezko bi ardatz daude biktimen estatusa –edo nolabaiteko sailkapena– ezartzeko, hitza gustatu ez arren. Batetik, ETaren jomugak kazetariak, juezak eta politikoak izan direnean agertu dira biktimak. Zuk Julen, aipatutako E horietatik batek errekonozimenduari egiten dio aipu. Egiaz zor, ETaren biktimek azken hamarkadan ezagutza soziala, politikoa eta instituzionala izan dituzte, baina aurreko hamarkadan aldiz ez zuten batere errekonozimendurik jaso, hutsaren hurrengoa baizik. Gizartearen erantzuna hutsa izan zen, instituzioen tratamendua ere hutsa. Bien bitartean, ETaren inguruko biktimek errekonozimendu sozial-politiko-instituzionala izan zuten, beste terrorismoen eraginez edo Estatuak urratutako gizaeskubideen ondoriozko biktimen ezagutza ez zen hutsa izan. Jende horrek babesa jaso zuen udaleko aldarrikapen politikoetan eta herri solidaritate ekintzen bidez. Errekonozimendu moduko bat izan da, ez dut nahikoa denik esan nahi. Alegia, aurreko hamarkadetan gertatuarekin alderatzen ari naiz, orduan ETaren biktimen eta beste biktimen artean desberdintasun nabarmena izan zen. Gertatuak gizartearen eragin zuen, orain biktimen arazoa tratatzeko faseak behar direla ulertzeko hori ere ulertzea funtsezkoa da.



J. FERNANDEZ. Badakit etikoa aipatzea oso erromantikoa dela, ez praktikoa, Julen. Galdera bat ordea: zerk jartzen du jokoan hau guztia? Zer dago gizaeskubideen atzean? Proiektu bat. Gizaeskubideen jatorria proiektu etikoa da, pertsonaren duintasunaren babesle, eskubide kolektiboa eta indibiduala, baina proiektua finean. Orain arte esan dugunetik ezer kendu gabe, hemen jokoan dagoena desafio pertsonala da, biktimen sufrimenduarekiko gure harremana. “Beste” biktimekiko jarrerak jartzen du jokoan gure humanizazio edo deshumanizazioa. Hau da, hurkoarekiko intsentsibilizazioak astotzeko bidea irekitzen du, batzuetan pozteraino. Ez da perspektiba hau galdu behar, pertsonari dagokion garrantzia soziala eta politikoa ditu. Oinarri honetan, ez dezagun ahaztu, biktimarentzako inportanteena ez dela agertzea edo exhibitzea, lagundua izatea baizik. Omenaldia, sostengua eta errekonozimendua inportanteak izanik ere, biktimarentzat inportanteena laguntza da. Hainbat biktimen sektoretan gertatu den beste faktore bat dago, tamalgarria: sektore hauek, ez biktimek, arazo politikoa emango ez dion solidaritate guztia errefusatu dute, eta hori oso arazo larria da. Biktimen egoera eta



1980an BVEk Felipe Sagarna Zapa hil zuen Hernanin. Incansables txarangako atabalaria zen.

sufrimendua baliatu dituzte berek defendatzen duten aukera politikoaren faboretan. Besterik da biktimak laguntzeko landu den bidea. Gregorio Ordoñezen hilketara arte biktimak ignoratuak izan ziren, eta harrezkero, egin den guztia politikak, hedabideek, zatiketak eta krispazioak markatua izan da. Eta horrek autokritika zehatza behar luke.

Lehen mailako eta bigarren mailako biktimen sailkapena agertu da solasaldian.

J. FERNANDEZ. Badaude, bai, eta sailkapenek ez dute laguntzen: gure aldekoak biktimak dira, ezbairik gabe, beste aldekoak aldiz zalantzan jartzen ditugu. Sailkapen ideologikoa da. Biktimaren sufrimendua tratatzeak norberaren ahalegina eskatzen du.

J. ARZUAGA. Lagunduak izatea eta biktimen errekonozimenduaren harian pare bat hitz: egia da, herriaren partetik eta hainbat instituziotan, udaletan, Estatuaren biktimen aldeko errekonozimendua eman da, baina goimailako instituzioek eta batez ere insti-

“Denok dugu desafio garrantzizko bat biktimen sufrikarioarekin: humanizazio —edo deshumanizazio— dinamika batek nora eramán gaitzakeen zehaztu behar dugu. Arazo politikoaz ari garenean, kausa-efektu diagnosisz ari gaitzke, baina sufrimenduarekiko enpatian ez da hau kabitzen”

JONAN FERNANDEZ

tuzio juridikoek jarrera zeharo desberdina izan dute. Gizaeskubideen ikuspegitik oso kalitate gutxikoa izaten da gainera: operazio polizialak martxan jarri ohi dira, Entzutegi Nazionalaren salbuespenezko sasi-justizia jarri da beraien alde, zigorrak betetzeko espetxe politika ankerra aplikatu da. Estatuaren bortizkeriaren biktimek Estatuaren instituzio juridikoen itxikeria izugarriarekin topo egin dute, Estatuaren biktimei ez baitzaie inolako justiziarik eman: tortura salaketa medio bideratutako auzi gehienak berehala artxibatu dira, eta zigorrak izan diren kasuetan indultua etorri da segituan. Pertsona hauen sentsazioa izugarria da. Jonan, zuk esan duzu bakoitzak bere biktimak baino ez dituela onartzen, ados, baina ikus dezagun alde bateko zein bestekoen jarrera. Niri ezinezkoa egiten zait beste aldean biktimak ez daudela onartzea. Galdera da: beste aldekoek sentimendu edo jarrera hori al dute? Aitortzen al dute Estatuaren biktimak badaudela, justiziak ahaztu dituela, badakite sufritzen dutela?

E. LOPEZ ADAN. Negoziazioaren testuinguruan eta gatazkari eman behar zaion irtenbide politikoaren aurrean, jarrera indibidualak eta sozialak aipatuko ditut, baita boterearen jarrerak ere. Pertsonen eskubideen aldeko ekimen kolektiboak bultzatzea ondo iruditzen zait, eta zentzu horretan ETako kideen aldekoak oso eskas iruditzen zaizkit. Halaber, ETak eragin dituen biktimek, armatuek edo zibilek, terrorismoarenak deituek, gehienetan euskal jendartearen aldetiko sostengua eskasa izan dute. Areago, irudi luke institu-

zioen ekimenak etorri direla jendartearena konpentsazera, orekatzera. Egia da, Estatuak biktima konkretu eta batzuen aldeko errekonozimendua egin du. Andoainen badira ETaren biktimak, eta berauek monumentuak nahiz poesia sarien izenak dituzte. Baina badira ere Batallón Vasco Españolaren (BVE) bi biktima eta hurbilekoak baino ez dira haiekin oroitzen. Estatuaren trataera asimetrikoa da, eta honetan Arzuagak arrazoi osoa dauka, Estatuak beste aldeko biktimen existentzia ukatu du. Gatatzaren konponketan botere politikoak ari dira negoziatzen, eta nik ETA eta bere ingurua ere sartzan ditut barruan. Testuingurua definitzea funtsezkoa da, jendartearen “sentimendu eta jarrera eskasa” dela-eta, agian, ez da testuingurua ondo ezagutzera eman. Baina horiek ere gatatzaren ebazpenean parte-hartze zuzena dute.

T. URKIJO. Andoainen ETaren biktimek beren monolitoa dutela diozu, bi dira, eta biak azken hamar urtetako biktimak dira. Baina Andoainen hamar biktima daude, eta denek ez dute monolitorik, eta inor ez da eurekin gogoratzen. Inork ez ditu aipatzen, BVEren biktimekin gertatu bezala. Horrek ere lehen eta bigarren mailako biktimen sailkapena agertzen digu, gaingitu beharreko arazoa. Julen, zuk planteatzen duzuna ondo da. Ni errekonozimendua-aren esparruaz ari nintzen, ezagutza sozialez eta politiko-instituzionalez, ez biktimei eman behar zaizkien erantzunez. Biktimek ez soilik errekonozimendua, nik egiaz, memoriaz eta justiziaz hitz egin dut. Zuk berebiziko aspektuak aipatu dituzu, botere instituzionalek eman behar dieten erantzuna: bat, egia/ezagutza. Bi, justizia. Hiru, dagoen inpunitatea. Nik horiek terrorismoaren biktimantzat eta biolentzia ororen biktimantzat defendatzen ditut, baina bereziki terrorismoaren biktimantzat, eta aspektu horretan balore hauek ere balio dute eta defendagarriak dira edozein biktimarentzat. Nik ETaren, BVEren, eta GALen biktimak daudela onartzen dut, biktima parapolizialak edo paraestatalak alegia, baina horiek Estatuak egindako eskubideen urratzetik bereizten ditut. Torturen biktimek –bere kontzeptualizazio judiziala dutena–, bestelako tratamendua behar dute eta ez naiz horietan sartuko.

J. ARZUAGA. Eta epaiketaz kanpo exekuzioak eta desagertaketak... .

T. URKIJO. Nik horiek Estatuari dagozkion betebeharretatik eta mugetatik kanpo kokatzen ditut. Hau da, dagozkion funtzioetatik harago doazen gizaeskubide urratzeak bereizten ditut. Ez diet duten larritasuna kentzen. Baina guardia zibil batek bere lana utzi eta orduz kanpoko “lanak” egitera kaputxa jantzirik joaten bada, hori ez da legezko ariketa. Eta ez dut arazorik bera eta Estatuaren arteko elkar hartzea izango dela aitortzeko, ez naiz terrorismo paraestatala izan dela adierazteko lotsa. Baina ez dira gauza bera Gasteizko 1976ko martxoaren 3koa eta ATE, Triple A, BVE, Guerrilleros de Cristo Rey edota GALen hilketak.

J. ARZUAGA. Nik berriz Estatuaren zereginaren barnean sartzan dut, izan ere, zuk bakarrik kontuan hartzen duzu hildako pertsonen kasua. Baina, adibidez, Bilbon pasa den otsailean preso-aren aldeko manifestazioetan poliziaren neurritz kanpoko erasoak eta astakeriak izan ziren, Estatuaren gehiegikeriaren biktimak izan dira. Manifestazioa botere juridikoek ilegalizatua zen, ados, baina baketsua zen. Gure zailtasuna eta erronka da estamentu horiek beren erantzukizuna dutela frogatzea, baina Estatuaren estamentu polizialek erantzukizuna dutenez gero oso zaila da biktimak direla onartzea. Mendeak pasako dira Eusko Jaur-laritzako Barne Sailak biktimak eragin dituela onartu arte, kostako zaio gizaeskubideen bortxaketetan erantzukizunak dituela aditzera ematea, baita zuen Bulegoari ere.

T. URKIJO. Gure Bulegoaren lan lerroak zorrotz-tasun gutxiago edo gehiago izango du ikuspuntu juridikotik, baina aritzeko esparru bat definitzen du eta honek ez du kentzen beste biktima batzuk eta beste gizaeskubide batzuk urratzen direla onartzea.

J. FERNANDEZ. Zuek, Emilio eta Julen, ni etikaren esparruan ari naizela diozue...

E. LOPEZ ADAN. ...ez da gutxiesgarria.

J. FERNANDEZ. Ez, badakit. Ondo dela diozue, baina ez dela funtsezkoena.

E. LOPEZ ADAN. Ez da hori ere.



Espainiako
Estatuko indar
parapolizialek
Santiago Brouad
Bilbon eta Josu
Muguruza
Madrilen hil
zituzten 1980ko
hamarkadan.
Biak Herri
Batasuneko
kideak ziren.

J. FERNANDEZ. Alabaina, nire irudiko, erabat okerra da arazo politikoaren atzean paratzea biktimen sufrimenduari aurre ez egiteko. Alegia, guztiok hesi ideologikoen bestaldean babesten gara eta honek biktimen sufrimendua estali egiten du. Eta irakurleak hori argi eta garbi ulertzea nahi dut.

Berriz ere, zuetako bakoitzak gatazka politikoa ulertzeko duen modua azalduko da solasean.

J. FERNANDEZ. Nik uko egin diot gatazka politikoaz hitz egiteari. Ziur aski, gauza askotan bat gertozke, baina biktimei buruz hitz egitera etorri gara. Biktimei buruz hitz egiterakoan auzian dagoena ez da gatazka politikoa. Errekontziliazioaz arituko garenean, beharbada, gatazkaren eta biktimen gaiek bat egingo dute.

T. URKIJO. Bai, baina besteok egin ditugu gatazka politikoari buruzko zehaztapenak eta zuk ez. Guk joko zelaia definitu dugu.

J. ARZUAGA. Asko kostata, gainera!

J. FERNANDEZ. Nire baieztapena hauxe da: hainbat pertsona ezagutzen dut deshumanizazio egoera-

ra iritsi dena aurreiritzi edo aurrekari politikoetan babestu delako, horrek beren sentsibilitatean eragin du, ez diote egoerak sorrarazi behar duen sentsibilitatea garatzeari ekin, eta horrek galarazi die biktimekiko jarrera hartzea.

Eusko Jaurlaritzak Bilboko Euskalduna Jauregian biktimen aldeko ekitaldia burutu zuen apirillean. Sektore batzuek ekitaldia "bartzetzaille"tzat jo zuten, auzia bideratzeko modu okerra.

J. FERNANDEZ. Ekitaldia ondo iruditu zitzaidan, baina ez zen osoa izan. Esperientzia batzuek erabateko ekitaldiak ezinezkoak direla erakutsi digute. ETaren biktimak ignoratuak izan ziren iraganean, hori datu objektiboa da. Hala ere, ekimenaren parte baten oinarriarekin ez nator bat. Badirudi euskal gizarteak zor espezifiko eta orokorra duela biktimekiko, hori da antza Jaurlaritzako Bulegoak egiten duen diagnosa. ETaren biktimekiko erantzukizuna gizartearena dela ematen du, ez nator bat eta akats larria da. Ezin da estigma zabaldu gizartean, ardura izendatu gabe, ardurra guztiona balitz bezala. Estigma hori ari da zabaltzen eta ez da justua.



Joseba Goikoetxea Ertzaintzako sargentu nagusiaren hil kapera. ETak hila 1993an.

T. URKIJO. Zabaltzen ari da edo saiatzten ari da zabaltzen?

J. FERNANDEZ. Saiatzten ari da zabaltzen.

T. URKIJO. Bada, ez bata ez bestea.

J. FERNANDEZ. Hori da ondorioztatzen ari dena. Kritika hori indibidualizatu behar da. Esan behar da, alderdi politikoek eta instituzioek, demagun, Gregorio Ordeñezen hilketara arte ez zituztela biktimak babestu. Hedabideek aitor dezaten paso egin zutela biktimen arazoaz eta biktimengandik berarengandik, orain badirudi gizartea dela erruduna.

T. URKIJO. Horiek ere gizartea dira.

J. FERNANDEZ. Baina zehaztu dadila. Esan diezagutela euskal gizarteak, katalanak edo madrildarrak erru bera dutela. Zein gizarte manifestatu da euskal gizartea baino gehiago biktimen alde Europar?

T. URKIJO. Biolentziaren aurkako mobilizatzea ez da ezinbestean biktimen alde mobilizatzea.

J. FERNANDEZ. Nahi duzuna. Gogora ditzagun Jose Maria Ryan eta Jose Arregi hil zituzteneko mobilizazioak. Erantzukizunak eta erruak indibidualizatu behar dira, bestela akats handia egingo dugu.

T. URKIJO. Baliteke gure Bulegoak ez jakitea zuzen-zuzen transmititzen azaldu nahi duguna. Ez dugu nahi inorenganako erruaren sentimendua transmititzea, ez flagelazioaren praktika sustatzea, ezta historian estigmatizatuko gaituen ezer bultzatzea ere. Besterik gabe, gure gizartea ez zela/ginela maila duinean izan onartzea nahi dugu, ez ginela gauza izan solidaritatea zabaltzeko, bestela bakoitzak esatea dauka: "Nik egin nuen". Guk alde pedagogikoa landu nahi dugu, erantzukizun eskasa dela-eta, ez dugu burumakur eta mingostuta bizitzera heldu nahi. Iraganaren ikuspegi kritikoa egin ez etorkizunerako osagaiak landu nahi ditugu. Euskalduna Jauregian hau izan zen gure mezua: "Gaizki egin genuen, baina garaiz gabiltza". Gizarteari berarekin daraman ardura eta zama gaintetik kendu nahi diogu. Ekitaldia zor historikoa kitatzeko izan zen, berandu ote zen ustea genuen eta berandu baino lehen egin dugu. Kontziente gara biktima

guziak ez zeudela han, gure asmoa ere ez zen hori, iritsiko da unea horretarako.

J. FERNANDEZ. Nik jende arruntarengan pentsatzen dut. Pertsona honek zer egin du genero biolentziaren biktimen edo Afrikako biktimen aurrean? Bizi, zentzu onenean, bizitza aurrera atera, lan egin. Egunen batean manifestazio batera joan da eta sinaduraren bat bota du. Nahiko du bizitza aurrera ateratzearekin. Gizartea horrela da, baina zer egin dute hedabideek garai horretan? Gizarteari transmititu diote lau guardia zibilen hilketak albiste labur bat merezi zuela egunkarian. Zer egin dute alderdi politikoek? Hori zehaztu behar da. Ekimen generikoak estigma zabaltzen du eta injustua da.

T. URKIJO. Estigmatizatua ikusten duzu euskal gizartea guk egindakoarengatik?

J. FERNANDEZ. Ez. Baina, zuen analisian badago hauxe gutxi gorabehera: ETAk euskal gizartearen izenean ekin duenez, gizarteak badu zor espezifiko eta singularra. Ez nago ados. Demagun, ETAk ezker ikuspuntutik ekiten duenez, ezkerreko guztiek zorra daukate.

T. URKIJO. Oso sinpleki erantzungo dizut: ni Baskoniako bazkidea naiz eta Buesa Arenan nagoela Malagako edo Madrilgo zaleek botila bat kantxara jaurtitzen badute gaizki iruditzen zait, eta nire kideek egiten badute are okerrago. Nire zalegoak egin duen gaizkia konpontzen saiatuko naiz. Ez dakit kirol arloan gertatzen dena zergatik ez den gertatzen beste esparrutan.

E. LOPEZ ADAN. Agian denok ez garelako Baskoniako bazkideak.

Autokritika beharrezkoa ikusten duzue, bederen.

E. LOPEZ ADAN. Bai, baina ez Euskaldunan egin zen bezala, ni ez nago ados egin zen moduarekin, arazoa bideratzen hasteko modu okerra da. Gatazkaren puntu bateratua aurkitu nahi badugu, biktimak ez katalogatzen saiatu behar da, alde batekoak zein besteakoak, gatazkaren biktimak

izendatzen baizik. Euskaldunan omenduak alde batekoak izan ziren. Arestian esan bezala, biktima zibil eta militarra bereizi beharra dago, ez dago beste modurik. Eta Euskaldunan biktima zibilak eta militarrek omendu ziren. Jonan, zuk iraganean guardia zibilek ohar txiki bat baino ez zutela jaso diozu. Niri 1980. urtera arte guardia zibilek solidaritate zibil eta publikoa jaso ez izanak –edo euskal herritarrenak– ez nau harritzen, eta gainera ez dut horretaz damutzeko inolako motiborik. Biktimak izan zirelako gaizki portatu garelako onartzea gehiegikeria iruditzen zait. Frankismotik heredatu genituen indar errepresiboak trantsizioko lehen garaian herriaren aurka oldartu ziren modu basatian. Gasteizko Martxoaren 3ko biktimak aipatu dituzu zuk, Txema. Jendearen gehiengoak gertakari historiko horiek oso gogoan ditu. Beraz, Estatuaren defentsako biktima militarrei eman behar zizkieten omenaldiak eta ohoreak ez badizkiete eman, Estatuak eman diezazkiela. Zentzu horretan Euskaldunan egin zen omenaldia ez da zuzena. Biktimen elkarteei dagokienean, hauxe nire galdera: justizia eta sententzia zeren izenean ematen da? Zeren funtzioan, zein lege eta ordenu publikoren barruan? ARGIAko zuzendari alboko Pello Zubiriaren kasua, adibidez, *Egunkariaren* zuzendaria bezala auzipetua. Biktimen aldeko elkarte batek dioenez, Zubiriak mina egin die haiei, zuzenki. Elkarte horrek prozesua exigitzeko hori argudiatu du. Alta, biktimen balizko egile eta biktimen arteko loturarik ez dago inondik inora. Hori da elkarteak eraiki duen argudio intelektuala, eta kasua daraman auzitegiak instantzia onartu du eta pertsona hauek epaitzera eramanez ditu. Hau da, parametro politiko-ideologikoen arabera funtzionatzen duen elkarte horri juezaren funtzioa eman zaio, parte-hartze larria. Biktimei esan behar zaie behingoz ez dutela justizia egiterik, badituztela eskubideak, baina arazoari auzitegietatik at ekin behar zaiola.

J. ARZUAGA. Euskaldunako ekitaldiaren aurkako nire jarrera publikoa da. Ados naiz Emiliorekin. Areago, Espainiako auzitegiek Estatuaren eraso jasan duten biktimekin duten jokamoldea kalitate gutxikoa da. Euskaldunan ETaren aurkako ekitaldia burutzea xede izan zen. Ekitaldia orokortu zen, bik-

“**B**aliteke gure Bulegoak ez jakitea zuzen-zuzen transmititzen azaldu nahi duguna. Baina ez dugu nahi inorenganako erruaren sentimendua transmititzea ere, ez flagelazioaren praktika sustatzea, ezta historian estigmatizatuko gaituen ezer bultzatzea”

TXEMA URKIJO

timak protagonistak bihurtu ziren. Aralar alderdiak aipatu zuen zerbait bateratua egin behar zela. Javier Madrazok esan zuen interesgarria izango zela orain GALen biktimen aldeko ekitaldi bat egitea. Nola da posible hau egitea GALen biktimen oniritzirik gabe? Bulegoaren zerrendetan ETaren biktimak baino ez direnak azaltzen direnez gero, nola egingo diozue aurre errealitateari? Biktimen kolektiboa heterogeneoa da, konplexua eta zaila tratatzerakoan.

T. URKIJO. Bai, noski. Oso konplexua da. Jonanek bi kolektibo aipatu ditu, zuk terrorismoaren eta Estatuaren biktimak bereizten dituzu. TATEk hori dio nirekin bildu denean, baita egia ez diren gauzak esan ere. Euskaldunako ekitaldia baino lehen bilera egin genuen, haren ostean TATEk prentsaurrekoa eskaini zuen, bertan nik bileran esan ez nituen adierazpenak jarri zituzten nire ahotan. Bestalde, zuek biktimen kontzeptuaren errefusatze moduko bat egiten duzue: “Ni ez naiz biktima” dioena, “ni pertsona torturatua naiz” baizik. Baliteke oraindik horretan egotea, konpondu gabeko gatazka batean gaudelako, heldua ez den prozesu honetan oraindik ezin diogu honi aurre egin antza, bideraezina da. Ekitaldiari egindako kritika modu askotara uler-tu daiteke. Onargarriak, noski. Baiezatu daiteke ez daudela biktima batzuk. Baina ez badute egon nahi? Ez baduzue kontzeptua onartzen, nola egongo dira? Beraz, hasteko biktimaren izaera onetsi eta gero esan: ez naiz interpelatua izan. Guk badugu zer landua, ziur, ados, baina zuek ekitaldia politika



RUBEN PLAZA

Jose Luis Lopez de Lacalle kazetariaren hileta elizkizunak. ETak hila Andoainen, 2000 urtean.

egiteko baliatu duzue. Hemen, Jonanek aipatu duen arrazoi politikoaz jabetzeko nahia dago, biktimen patrimonializazioa bereganatzea interes politiko zehatzak lortzeko. Zuek egurra eman diguzue eta AVTkoek ere bai. Eusko Jaurlaritzak, berezko biktimak ez dituenek, ezin du ezer patrimonializatu. Guk urrats bat eman dugu. Gure Bulegoaren bidez terrorismoaren biktimei laguntzeko ari gara aspaldi, GALen biktimen edota parapolizialen biktimen kolektiboei egin diezaguketan kritika ez da oraingoa. Ez dela den-dena behar bezala egin? Ados. Guk borondatea ipini dugu gaia lantzeko, kritikatu egin digute, baina lanean segituko dugu aipatutako terrorismo horien errealitatea txosten batean jasotzeko. Zuk badakizu hori Julen, eta zure kideek ere bai. Badagoela zer egin? Bai. Hau da, errealitate horiek beste errealitateekin bateratzea, biktima guz-tien beharrei erantzuteko.

J. ARZUAGA. Ados naiz, Txema. Baina zuek erdian kokatzeko izan zenuten asmoa publikoki adieraztea eta argitzea zenuten. Hau da, biktima konkretu hauei egingo diegu omenaldia.

T. URKIJO. Erdian nola?

J. ARZUAGA. Zuk diozu, alde batekoek egurra eman dizuegula eta beste aldekoek ere bai.

T. URKIJO. AVTk ez dio Eusko Jaurlaritzari aparte-ko estimua.

J. ARZUAGA. Ados. Hainbat arazo zenuten, baina esan zenezaketen: “ETAren terrorismoaren biktimen aldeko ekitaldia da” eta elkar ulertuko genuen.

T. URKIJO. Ekitaldia ez genuen ETAren aurkako ekitaldi bihurtu, zuk diozun bezala. Uste duzu GALen biktimaren batek lotura egin zezakeela ekitaldiarekin?

J. ARZUAGA. Ez, ez, ez, noski.

T. URKIJO. Oso garbiak izan ginen ekitaldiaren nondik norakoa azaltzean, ez genuen inongo momentuan esan ekitaldia terrorismoaren biktima guztiak eta biolentzia politikoa jasan duten biktimak omentzeko zela, inola ere.

J. ARZUAGA. Ez, garbi ez zegoenez guk hori begibistan ezarri nahi izan genuen...

T. URKIJO. ...eta kritikatu. Zuen kritika harago joan zen, zuen jarrera politikoa agertzeko kritika izan zen.

J. ARZUAGA. Kritika zilegia edonola ere. Ez gara hortik aterako, beraz, bego.

J. FERNANDEZ. Emilioren adibidera bueltatu nahi dut, guardia zibilena, 80ko hasierako hildakoena.

E. LOPEZ ADAN. Adibidea zuk jarri duzu...

J. FERNANDEZ. Bai, bai, haria berreskuratu aldera... Emiliok dioena nik esaten dudanaren

“Guztiok hesi ideologikoen bestaldean babesten gara eta honek biktimen sufrimendua estali egiten du. Eta irakurleak hori argi eta garbi ulertzea nahi dut”

JONAN FERNANDEZ

kontrako norabidean doa. Gauza bat da orduan gertatu zenaren interpretazioa egitea –eta ulertzen ditut gertatu zenaren zioak–. Alabaina, hitzen pedagogia egin behar dugu, bestela mendekuaren pedagogia landuko dugu. Gaur egun bizi dugun unea ispilua dugu, ezer onik emango ez digun egoera batera iritsiko gara. Gertatu zenari buruzko errebisio kritikoa egin behar dugu, ezin dugu planteamendu politikoen ostean gorde. Guardia zibil haien atzean instituzio bat zegoen, militarra, baina funtsean Extremaduran edo Andaluzian miserian bizi zen jendea zen, eta haiek hil zituzten, ez teniente koronelak.

E. LOPEZ ADAN. Teniente koronel askotxo hil zuen ETAk.

J. FERNANDEZ. Dena dela, ezin dugu biktimen gaiaren ikuspuntutik pedagogia hori landu. Ni autokritika egitekoaren aldeko naiz, baina ez orokorra. Aitzitik: Zer egin du instituzio honek? Zer mugimendu sozial honek? Zer egin dugu zuk eta nik?

Biktimen sufrimenduaren patrimonializazioa eta jabetze politikoa aipatu duzue, biktimen elkartek betetzen duten egitekoa ageri izan da zuen hitzetan.

J. FERNANDEZ. Delikatua da esparrua. Biktimismoa garatzen ari da, zauria purgatzeko joera dute hainbat elkartek. Oso esparru arriskutsua da, biktimentzat bereziki.

E. LOPEZ ADAN. Ateratzen dituzten abantaila politikoak ahantzi gabe.

J. FERNANDEZ. Asoziazionismoa delikatua da, biktimaren aldetik erreflexio bat eskatzen du. Praktikan batzuek laguntzen dute biktimizazioa gainditzeko eta beste batzuek egoera luzarazten dute. Eta hori salagarria da, eta hori ez dute biktimen elkarteek soilik egiten, instituzioek ere egiten dute. AVT bezalako elkarteek biktimen sufrimendua patrimonializatzen dute eta jabetze politikoa egin ere.

E. LOPEZ ADAN. Autokritikarena hizpide: beldur naiz gatazkaren ebazpena ez dela erraz iritsiko eta benetako desastre bat bizitzeko proportzio handia dela. Ez bada gatazka konpontzen, borroka armatua praktikatu zuten lehen belaunaldiek, baita erreprezioa jasan zutenek ere, krisi moral itzela biziko dute. Ez dut berriz gatazkaren ebazpen prozesuan sartu nahi, baina ez bada autokritika politikoa eginen, bi aldetatik, nekez izango da konponketa bat. Autokritikak errealista izan behar du, alde batek ezin dio Estatuari eskatu “beti oprimitu dut Euskal Herria” esan dezala. Baina Estuari “egoera paraestatale”tik atera dadila eska dakioke. Estatuak bitartekoak ditu jakiteko zenbateraino izan den inplikaturaren pertsonen esku-bideen urraketa praktika parapolizialen eta paraestatalen bitartez, eta une batera iritsita esan dezake: “Hanka sartu dugu. Terrorismoa konbatitu dugu eta



ETAk PPko zinegotzi Jose Ignacio Iruretagoiena zarautzarra hil zuen 1998an.

“Gerra Zibiletik ez da errekontziliazio prozesu bat gauzatu. Memoria historikoen biktimen kolektiboek ez bide dituzte egia eta justizia jaso. Badago zeregin itzela oraindik. Ni pozez zorutzen egongo nintzateke gatazkaren ebazpena mahai gainean gauzatu dadin, eta horren bitartez errekontziliazioa etor dadin”

JULEN ARZUAGA

pasa gara”. ATE, BVE eta GAL zer izan diren iker dezake Estatuak. Baina ez du nahi.

T. URKIJO. Bulegoaren zuzendariak Marixabel Lasak publikoki eskatu du hori egitea, eta Estatuak onartu beharko du.

E. LOPEZ ADAN. Ados. Bigarrena nahi dut aipatu: ezin zaio ETari eta bere inguruari eskatu 1953tik odoltzale koadrila bat izan direla onar dezaten. Ez du zentzurik. Ezta gloria kolektiboak izan diren kasuak ere kondena ditzaten: hala nola, Meliton Manzanos edo Carrero Blancoren hilketak. ETAk egin dezake autokritika esanez, une batez Estuari mina egiteko hautetsi demokratikoak erasotzera pasa ginen, zibilak barne, eta hanka sartu genuen hondoraino. IRAk egin du eta ez da deus pasa. Egin daitezke, eta aitormen berebizikoak izango dira gatazkaren ebazpenerako eta errekontziliazioa lortzeko.

Iritsi gara errekontziliazioaren puntura. Zein dira elkarbizitzarako oinarriak?

J. FERNANDEZ Ni nahiko ados nago Emiliok orain esan duenarekin. Errekontziliazioan badaude nahaste batzuk: batzuek errekontziliazioa lagunak bihurtzea dela pentsatzen dute. Okerreko bidea da hori. Errekontziliazioa errespetuz tratatzea da, besterik ez.

“ETAk egin dezake autokritika esanez, ‘une batez Estatuari mina egiteko kargu hautetsi demokratikoak erasotzera pasa ginen, zibilak barne, eta hanka sartu genuen hondoraino’. IRAk egin du eta ez da deus pasa”

EMILIO LOPEZ ADAN

Bigarren okerra da pentsatzea errekontziliazioa biktimen ardura dela. Hori erokeria! Utz ditzagun biktimak. Errekontziliazioa betebeharrak da. Beste nahaste bat da pentsatzea errekontziliazioa alde batekoen mendekua dela eta bestearen umilazioa. Hori hankasartze handia! Edo errekontziliazioa iraganaren gainean lurra botatzea dela. Iraganaren oroimena kritikatu behar dugu, biktimek eskubide morala, materiala eta politikoa dituzte: eskubide morala, egia eta duintasuna berreskuratzeko; eskubide materiala konpentsazioa lortzeko; eta eskubide politikoa, ez dadin etorkizuna eraiki iraganik ez balitz bezala. Prozesuak sufrimendu guztien errekonozimenduzko katalogoa eskatzen du, memoria bilduko duen artxiboa. Kritika morala egin behar da, eta berriz ere gerta ez dadin akordio batekin amaitu. Baina, gatazka ebazpenaren prozesua garatzen den bitartean, hau lortzea zientzia fikzioa da, errekontziliazio prozesuak denbora eskatzen du. Emiliok eskatu duen autokritika egitea zaila ikusten dut gaur egun, bost edo hamar urte beharko dira.

Gizarteak ETA eta Estatu hartara bultzatzeak azkartu dezake autokritika hori?

J. FERNANDEZ Ondo bukatuko den ebazpen prozesua behar dugu. Ziklo baten hasieran gaude eta prozesua buka daiteke Irlandan bezala, ondo. Edo alderantziz, Italiako Brigada Gorrien edo Alemaniako Baader-Meinhofen kasuetan bezala, oso gaizki. Bukaera duin batek lagunduko du errekontziliazioa gauzatzen, bestela nekez.

Bide okerretik ote goazen beldur zarete, antza.

E. LOPEZ ADAN. Bai. Ni izututa nago.

J. ARZUAGA. Bai. Eta lana pilotzen ari zaigu. Gerra Zibiletik ez da errekontziliazio prozesu bat gauzatu. Memoria historikoen biktimen kolektiboek ez bide dituzte egia eta justizia jaso. Badago zeregin itzela oraindik. Ni pozez zorutzen egongo nintzateke gatazkaren ebazpena mahai gainean gauzatu dadin, eta horren bitartez errekontziliazioa etor dadin. Jonan, zuk “barrera ideologikotan babestea edo gordetzea” diozunean, nik “konfrontazio demokratiko politikoa garatzea” diot. Mahai gainean proiektu politiko guztiak jarri, “ez gara berdinak, ez gara etsaiak arerio politikoa baizik” esanez, proiektu guztiak garatu ahal izateko. Honek biktimen eta biktima egileen artean errekontziliazio prozesua eskatzen badu, goazen aurrera.

Denek bat egiten duzue errekontziliazioaz Jonanek esandakoarekin.

J. ARZUAGA. Bai, egindako ñabardurak barne.

E. LOPEZ ADAN. Bai. Errekontziliazioak elkarrekin errespetua behar du. Jendeak gustura izan behar du sistema politikoaren barruan, baina ez dezagun pentsa “zein gaizki tratatu zintudan eta orain asko maite zaitut” esanez bukatuko dugula.

T. URKIJO. Jonanen hitzen harian bi ñabardura: ez da egokia biktimen arazoaz hitz egitea soilik, hitz egiteko egokiera sortzeko lan egin behar da. Guk adierazi nahi duguna adierazteko ahalegin izugarria egiten dugu eta lorpena berriz txikia da. Jendeari azalpen gehiegi emateak ez du laguntzen beti, biktimek nahi dutena berehala jasotzen ez badute, ez dute ulertzen. Errekontziliaziorako beste elementu gakoa da bortizkeria: bortizkeriak segitzen duen bitartean oso zaila da norabide horretan urratsak ematea. Gatazka bortitza ez ezik, gatazka politikoa luzaz izango da, gatazka izaera berezkoa baitu gizarteak. Herrien arteko moldatzea eta adostea da gakoa. Gatazka ETA izan baino lehen bazen eta gero ere izango da. ■



Fabián Laespada *

Indarkeriaren biktimei buruz

"Euskal instituzioak ari dira azkenaldion biktimenganako kezka eta onespena bereganatzen. Azken ekitaldia, polemiko askoa, Eusko Jaurlaritzak apirilaren 22an antolatu duena da"

Lehenengoz, hasierako aitopen txiki bat egin behar dut: indarkeriak berekin eraman-dako pertsonen gainean aritzen naizenetan, oraindik sendatu gabeko zauriak dituzten gizakiei buruz ari naizela ezin ahazturik ibiltzen naiz, eta honexek egundoko leuntasunez eta xalotasunez berba egitea eskatzen dit. Biktimak, funtsean, ondorio dramatikoenen eramaileak dira, gehienetan nahi gabe, ohartu gabe. Eta euren ingurukoak, bidegabeko oinaze izugarriaren subjektuak dira, biktimatzat hartzen ditugunak, alegia, bizirik dirautenak. Hortaz, oso gai delikatuak deritzot. Mingarria zait oso, egun nola hainbatek darabiltzaten biktimen ustezko nahiak, nor bere interesetara makurturik, askotan biktimen asmoak bakarra bailiran, bereganatu guran, legitimitateren bat saldu nahirik, antza. Auzi honi tentu handiz heldu ezean, agian, onura barik kaltea egin diezaiekegu biktimoi, eta hori azkena da.

Biktimaren definizio zehatz eta petoa ematea ez da makala, polemika nonahi sortzen baita erraz eta erruz. Gure Koordinakundean buru belarri aritu ginen kontu honen inguruan duela jada hainbat urte. Liburuxka bat argitaratu genuen *Indarkeriaren Biktimei buruz* titulupean. Gure iritziz, ustezko zio politikoak direla-eta eraildako pertsonak dira berez biktimak, asmo deliberatu baten bitartez hilaraziak. Jakina, hildako horien ingurukoak –familiarrak, batik bat– izendatzen ditugu biktimak. Definizio horren barruan, neurriz kanpoko edo ez-zilegizko indarkeria erabilita Estatuko indarrek, Triple A delakoak, BVEek, eskuindar muturreko taldeek, GALEk

eta ETak eraildako pertsonak sartzen dira. Beste aldetik, nor bere ardurapeko biolentzia erabilita hildakoak daude –bonba esku artean duela, nahi gabe zartatu eta hil egiten den etakidea, esaterako, edo polizia komando batekin topo egin eta tiroketaren ondorengo hildako terrorista–. Horiek, beren indarkeriaren biktimatzat har ditzakegu, bortizkeriaren arriskuez jakitun izanda, bereganatu egiten baitute. Hau esanda, hainbat kasu suerta litezke inongo definizioan kabitzen ez direnak, edo eztabaidagai direnak. Edozelan ere, guk, Gestokook, beti arbuiatu dugu hilketa bortitza, edonor delarik ere hildakoa, nahi baino gehiagotan latzak eta garratzak jasoaz, han-hemenka. Herri honetan bizia aldarrikatu, hilketa salatu eta sufritzen ari direnenganako elkartasuna erakustea beti egon da auzitan, susmopean, traza itsusian. Nik ez dut oraindik horrelako errezelarik konprenitu.

Indarkeriari zilegitasuna guztiz erazi eta biktimak oroimenera ekarri

Terrorismoaren azken txanpan gauden itxaropenari eutsi nahi diogunez [artean, iritziegileak ez zuen ETaren su-etenaren amaiera ezagutzen], nahitaez-kotzat jotzen dugu etorkizunaren eraikuntzan aha-legintzea. Bi dira etorkizun baketsu horri begira landu behar ditugun funtsezko gaiak: indarkeriari nola-halako zilegitasuna kendu eta biktimak aitortu.

Baina aurrera begiratze horrek eta bakea jadesteko gogo biziak ez gaitu etorkizuna edozein modutara eraikitzea eramango. Ez. Gure iritziz, funtsezkoa da indarkeriari zilegitasuna kentzea, hau da,

terrorismoa arma politiko gisa erabiltzeari atea itxi behar diogu, inork atzera buelta egin eta indarraren bidez bere jarrerak inposatzeko aukerarik izan ez dezan. Ondorioz, inoiz ezingo da pentsatu indarkeriak, gizarte osoan eta, batez ere, zuzenean jasan dutenen artean, egundoko samina sortzeaz gain, ezertarako balio izan duela. Honexegatik da agerikoa ez gizarteak ez demokraziak ezin diola inolako kontzesio politikorik egin terrorismoari. Sistema demokratikoaren funtsak berak galarazten du indarkeriaren erabileraren aurrean amore ematea. Bestela demokrazia bera traizionatzea litzateke, bai eta urte hauetan izuaren bidez inposatu nahi –eta nahi izan– digutenen aurrean defendatu dugunari uko galanta egitea ere.

Bakea biziki irrikitzen badugu ere, ezin gara dena ahaztu eta presaka orrialdez aldatzeko akats larrian jausi. Gaiztakeria litzateke, eta baita krudelkeria ere, batez ere biktimen aurka. Berauek dira indarkeriari zilegitasunez gabetzeko arrazoirik nagusiena, beraiek direlako ETaren terrorismoak –azken hogeitortan eskuarki– guztioi zuzendu zigun eraso bete-betean jasan dutenak. Terrorismoak ez zuen pertsona bat bere giza kalitateagatik aukeratu, baizik eta gu guztiontzat izan zezakeen esanahiagatik edo hilketa horrek gizartean bertan eragin zezakeen kalteagatik. Jakina, teoria honek Euskal Herrian burututako edozein terrorismori aplikatu dakioke. Eta indarkeriazko espiral horretan edonor –bere inguru ideologikokoak salbu– izan

zitekeen kaltetua. Eraso denon aurkakoa izan zela onartzeak biktimak aitortzea dakar. Horregatik, gure erantzuna kolektiboa, gizarte osoarena, izan behar da. Biktimek gure aitortpena, begirunea eta elkartasuna merezi dute. Terrorismoa justifikatzea edo horren erabileraren aldeko aitzakiak bilatzea jasanezina litzateke edozeinentzat. Terrorismoa erabili eta justifikatu dutenek beren ardura dute eta beren gain hartu behar dute. Eta berriro diot, bertoko banda terroristak eraginakoa zein edonongo gobernuren itzalean sortutako terrorismoak eraginakoa justifikatu edota laudatu dutenen jarrera da onartezina. Ildo honi jarraiki eta ondorio gisa, gizarteak biktimei dagokienez, urte luzetan isilik egon izana bere gain hartu behar du eta era kontsekuentean jokatu. Baita instituzioek ere.

Izan ere, euskal instituzioak ari dira azkenaldion biktimganako kezka eta onospena bereganatzen. Azken ekitaldia, polemiko askoa, Eusko Jaurlaritzak apirilaren 22an antolatu duena da. Guk hauxe iritzi diogu ekitaldi honi:

- ✓ Erabat beharrezkotzat jotzen ditugu honelako ekitaldiak, terrorismoak estigmatizatutako pertsonenganako euskal gizartearen behinolako gabezia arintzeagatik.

- ✓ Gehien sufritu dutenenganako zor handia dugulako, biktima ez ezik, lotsa soziala ere bihurtzen baitziren/baikenituen.

- ✓ Gu guztion memoria landu behar delako, etorkizunak oinarri etiko sendoak izan ditzan, alegia

"Gaur egun oso zaila suertatzen da biktimen aldeko ekimen adostu bat aurrera ateratzea. Oraindik batzuen eta besteen zauriei odola darie. Baina hobe ezer gutxi egitea ezer ez egitea baino, ezin baikaitezke paralizaturik geratu auzi honetan"



indarkeriaren erabilera behin betiko galaraziko duena, elkarbizitza erraztuz.

✓ Eusko Legebiltzarrean, euskaldunon esparru demokratikoan, hartutako erabaki baten ondorioa da ekitaldi hori.

✓ Hainbat euskaldunon beroa eta indarkeriaren kontrako konpromisoa erakusteko aukera izan zen.

Gaur egun oso zaila suertatzen da biktimen aldeko ekimen adostu bat aurrera ateratzea. Oraindik batzuen eta besteen zauriei odola darie. Baina hobe ezer gutxi egitea ezer ez egitea baino, ezin baikaitzke paralizaturik geratu auzi honetan. Bestelako ekimen batzuk ere jorratu beharko dituzte euskal erakundeek baina garrantzikoena, nire ustez, norberaren konpromisoa da, bakoitzak egin dezakeen hautua, alegia indarkeriaren kontrako jarrera tinkoari eutsi eta biktimenganako –edozein dela ere– hurbiltasun zintzoa agertu.

Biktimenganako gizartearen adiskidetzea

“Adiskidetzea” edo errekonziliazio hitzak erreze-
loa eragiten du biktima batzuegan eta segurue-
nik berebiziko arrazoiak dituzte horretarako.
Azken garaioan, batzuen ustez, biktima eta bikti-
marioaren arteko jarduera da adiskidetzea eta,
gainera, biktimak prestutasunez, eskuzabaltasun-
ez, barkamenez... jokatu behar du. Eszenatoki
horretan ez da ezer esaten biktimarioari buruz.



Hau da, biktimak, terrorismoak eragindako kon-
pondu ezineko kalteak jasateaz gainera, adiskide-
tzearen kontzeptu laudagarriarekin apaintzen den
garrantzi handiko jardueraren arduradun zuzen-
tzat hartzen dira.

Gure ustez, hori, adiskidetzearen eta berau
jadesteko eman behar ditugun urratsen ikuspuntu
ustela da. Eta, batez ere, ikuskera zuzengabea da
biktimei dagokienez. Beste ezer baino lehen,
beraienganako defizita aitortu behar dugu, gizarte
osoaren aurkako erasoaren zoritxarreko jasotzai-
leak izan direla aitortu eta, aitorten hori egin
ondoren, ordain eta elkartasun ekintzak garatu.
Biktimek ez dute era bateko edo besteko eginbe-
har kolektiboaren arduradun izan behar, alderan-
tziz, gizarteak bultzatutako elkartasun jardueren
jasotzaileak izan behar dute; eta erakundeak buru
izan behar dira ekintza horietan. Biktimek bikti-
marioekin izan dezaketen jarrera, pertsonala izan-
go da beti eta kanpotik ezingo da sekula eskaki-
zunik planteatu, eta are gutxiago, aitorten eta
elkartasunezko ezinbesteko bidea egin gabe.

Memoria bizia

Gure herri eta hirietan biktimak gogoratu behar
ditugu. Joan dan azaroan Bakearen aldeko Koordi-
nakundeak antolatu zituen Biktimekiko Elkartasun
Jardunaldietan, hauxe zioen ETAk hildako baten
aitak: “Norbaitek gogoan baditu, gure artean izango
dira”.

Zalantzarik gabe, biktimak gogoan izatea, bikti-
mak ez ahaztea da ausentzia gehien sufritzen dute-
nen itxaropena eta guk gure errukia erakuts die-
zaiekegu. Beren oroitzapena, gainera, lur honetan
gauzatu izan den izuari zilegitasuna kentzeko lehe-
nengo arrazoia da. Hainbeste heriotza bortitz eta
hainbesteko samina ezin da biktimen etxe barruan
gordeta geratu; etenbako mezua izan behar dute,
inolako zalantzarik gabe baieztatu dezagun izu hark
ez zuela eta ez duela inolako justifikaziorik izan, ez
zegoela arrazoi bakar bat ere hildako eta mutilatuta-
ko pertsonen indarkeriak ezarri zien zigor krudela
jasan zezaten.

** Euskal Herriko Bakearen Aldeko
Kordinakundearen (Gesto por la Paz/BAK) kidea*

Disidentea biktima gisa

“Esperientziak eta arrazoiak erakusten digute zapaltzaile izateak berarekin dakarrela aurre egitera ausartzen den disidentea baino ahalmen erasokor handiagoa eta kaltegarriagoa izatea”



DANI BLANCO

Jesús Biurrun *

Disidentea, biktima gisa, diferente pentsatzeko dukazioa pizten du diskurtso nagusian. Har dezagun itxura bertutetsua duen esaera bat: “datorren lekutik datorrela”. Ahotan hartzen duenak erbesteratze logikoaren baitan kokatzen du: gertakari konkretuaren lurraldetik –atentatu bat– eskubide unibertsalen espaziora, gertakizunen eta historiaren sasotik baldintza eta denbora zehaztasunik gabekora. Esperientziatik abiatzen den hegaldia, diferentzia antzematen ez duen linboan lur hartzeko. Indarkerian oinarritutako bi gertakaritan ohikoa, ez ohikoa eta kontrakoa ikusten uzten ez duen itsumen bertutetsua. Horri esker, desegokitasunetik harago joan liteke, lizunkeriaren mugan, eta kasu bakoitzaren ezaugarriak aipatu –matxinatu baten tiroz hildakoa eta polizia baten tiroz hildakoa–, bi fenomeno sekula ezin konpara litezkeela berretsi nahian.

Aipatutako esaera errugabetasunerako ate txiki bat da, intentzios eta eraginez ongi hornitutako dendaste batera garamatzana. Honakoak aurkituko ditugu barnean: 1. Biktimak euren biktimizazioa eragin zuen rol ezberdin batean ikustarazten ditu. 2. Diskurtsoa bere jatorritik ateratzen du, gatazka politikotik, zapaltzaileen praktika jazarleen aurkako erresistentziatik, beste jatorri zeharo ezberdin batean kokatzeko, gizaki guztiak berdinduko litzuzkeen bizitzeko eskubidearen baitan. 3. Disidenteaaren ekintza –prestigiduna– zapaltzailearena lortu nahi izatera bideratzen du –prestigiorik gabea–, eta bistatik uxatzen ditu baten eta bestearen arrazoiak eta ekintzak berdintzen ditu; hortaz, lehenengoak bigarrenaren berdina egiten bal-

din badu, bere arrazoiak ere prestigioa galduko dute. Bi aktoreen indiferentziazioak luzapen zehatzak ekarriko ditu, besteak beste, disidentea (torturaren bezero naturala) exekutatzailerik bihurtuko da bere erresistentzia agerian utzi edo bere protesta azaldu orduko.

Esaera gizartean sustraitzen den heinean, bere zapaltzaileek gero eta arreta handiagoa eskainiko diete disidenteaaren indarkeria kasuei zapaltzailearenei baino. Horrek, alde batetik erabaki konkretu bat eskatzen du zentzu horretan, eta bestalde, martxan jarritako dispositiboaren logikak dakar ezinbestean. Erabaki kontziente bat ageri da indarkeriazko gertakariaren erantzunaren azkartasuna handiagoa denean disidenteaaren kasuan kontrakoaren kasuan baino. Eta makineria diskurtsiboak bere exijentzia areagotzen du, indarkeria guztiei berdintasunezko tratua emateak erantzunaren kolapsoa eta zapaltzaileek izen ona galtzea ekarriko bailituzke, eta hori da egun alderantzikatu nahi dena. Ikus nola: hiritar bat askatasuna galtzeko prest baldin badago matxinatzeagatik, matxinadak irauten duen denbora irauten duela, astean behineko elkarretaratze publikoetan, besteak beste, Estatuak hiritarren askatasuna murriztera bideratutako denbora, leku eta energiak gutxienez bider 600 egin beharko genituzke. Proporzio hori beste zenbait kasutan aldatu egingo da eta osotasunean handitu, ez bairik gabe, beti Estatuaren onurarako. Horregatik, esperientziak eta arrazoiak erakusten digute zapaltzaile izateak berarekin dakarrela aurre egitera ausartzen den disidentea baino ahalmen erasokor handiagoa eta kaltegarriagoa izatea.

Goiz baino beranduago, jendaurrean salatutako indarkeria disidentearena da, zapaltzailearena lehenago izan zezakeen zentzua galdu duen automatismo erritual izatera murrizten den bitartean. Galdutako zentzua egun praktika ilegalekin baino ez da lotzen. Zapaltzaileen indarkeria bazterrezina, beraz, “kasu isolatua” izango da, saihestezina gizakien izaera kontuan hartuta, ez du inplikaturik ez aipaturiko gertakarien lekuko izan den instituzioa, eta aipatze hutsak zapalkuntza sistemaren babesle eta izaera justu, berdintzaile eta bermatzaile gisa funtzionatzen du.

Galbidearen bukaeran, “datorrenetik datorrela” zioen bakezaleak irudikatutako esparruari borroka oinarri duen indarkeria mota baino ez zaio gelditzen: disidenteak eragindakoa. Formulak zentzua galdu du “biolentoen biolentzia da existitzen den gatazka bakarra” izeneko sasoiaren baitan. Eta torturatzailerekin erakutsi bezala, orain biolentzia disidentea da.

Heriotza eta bizitza ez dira antagonistak mundu multipolarrean bakarrik, bien polaritateak besteen gainetik daude, barne hartzen dute, metabolizatu eta iraungi egiten dute maila baxuago bateko ganga bihurtuz. Bipolaritateak bere parte den guztiaren berri ematen du, bere parte ez dena baztertu nahian. Baina bizitza eta heriotza antagonista bihurtzeko parte txiki bat baino ez du azaltzen. Baztertuak hainbat errealitate ditu: suizidioa, bizitza duinaren kontzeptua, nor bere gain hartutako bizitza arriskuak... Finean, gizakien bizitzari intentsitatea, zentzua eta balioa ematen dion guztia. Gizakien bizitza osatzen duen objektu multzoarekin batera elkarrekintzan dauden bizitzaren eta heriotzaren esparrua baztertu ondoren, erraza da esatea biak edozein elkarriketa eta negoziatuz at dauden errealitate inkomunikatuetan, lehena ongiaren lekua da eta bigarrena gaizkiaren adierazle guztien bilgunea. Hortaz, ongizaleek, ongiaren aldekoek diskurtso mota horren lehen esparruari dagozkion metodoak baino ezin izango dituzte erabili. Bestelako praktiketara jotzen badute, beren ideiak, grinak eta helburuak kutsu hilgarria hartuko dute eta gaitzetsiak izango dira. “Ez da ideiarik heriotzarik justifikatzen duenik” izeneko sasoiaren baitan.

Elkarrizketaren bertuteak iragartzen dituen leloarekin lotuta dago aurrekoa, bigarrena hain muturrekoa ez bada ere. Hitz gatazka konpontzeko modu zibilizatu eta eraginkor bakarra dela dio. Proposamen horren eta aurrekoaren arteko lotura berehala nabar-

mentzen da, politika eta gerra kontrajartzen dituen unetik hain zuzen, Clauswitz-en esaera sonatua galtzerdi baten erara erabiltzen den bitartean, orain alde batean, orain bestean. Batzuetan, gerra politikaren bitartez eginez –disidentearen aurkako legeak– eta beste batzuetan politika gerraren bitartez eginez –praktika zapaltzaileak–.

Pertsona gehienek desioa gatazka konpontzeko elkarrizketa eta negoziatzea erabiltzea denez, desio hori gatazkaren alde ahulenarentzat armak uzteko gonbidapen bihurtzen da. Halako proposamenak argudio indartsuak behar ditu, eta guztien artean osasunari eta pragmatikari dagozkionak nagusitzen dira. Armategi pragmatikoan honako arrazoiak daude: “ezin irabaz liteke indarraren bidez”, “indarkeriak lortutako helburuak makaltzen ditu”, “indarkeriazko metodoek kontrako eragina ekar dezakete”. Esaldiak interesik gabek bezain ukaezinak dira, eta guztien balioa disidenteak markatzen du. Osasunari dagozkion arrazoiak arrisku fisiko eta sozialen ezabapena eskatzen dute, estresaren erlazazioa forma eta ondorio guztietan. Horri biktima armatuak biktima armarik gabeari egiten dion enfrontamendua datorkio atzetik, bigarrenari egiten zaion eraso lehenengoaren existentziak justifikatzen duenean. Zapaltzaileak zabalitzen duen gisan, bata bestearen baitan da. Esaldi horrek disidente zibilari iragarri egiten dio arma bihurtu behar duela, disidente armatuaren aurka. Babes arraro samarra, izan ere, onartuz gero, onuraduna sozialki eta psikologikoki desaktibatuta uzten du disidentzian jarduteko, ordurako moralki eta subjektiboki garaitua izan baita. Eta onartzen ez bada, “terrorista” azpikategorian sartzen du. “Kondenatzea aski da” izeneko sasoiaren baitan.

** EHUko psikologia irakaslea*

LARRUN pentsamendu aldizkaria

ARGIArekin batera banatzen da

Koordinatzailea: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160

Lasarte-Oria **Posta Elektronikoa:**

larrun@argia.com **Telefonoa:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP SCOOP.